



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

José Iparraguirre Altamira  
Eusebio Elizalde Mariezcurrena  
María Cristina Apezteguia Saldias  
Teresa Miqueo Gamio  
Francisco Javier Alchu Iparraguirre

2009ko irailaren 30ean, arratsaldeko 5etan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Aparteko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

### **1. KOMISIOAK ETA ORDEZKAPENAK.**

Aipatzen diren gaietaz arduratuko diren zinegotziak izendatu dituzte aho-batez:

Hezkuntza: Teresa Miqueo Gamio.

Osasuna: Francisco Javier Alchu Iparraguirre eta José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalde.

Beste komisioak mantentzen dira 2007ko ekainaren 25ean erabaki bezala.

Ondoren, Iturengo Udala ordezkatu duten zinegotziak izendatu dituzte aho-batez:

Malerrekako Mankomunitatean:

Ordezkaria: María Cristina Apezteguia Saldias.

Ordezkoa: José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalde.

Bertizko Partzuergo Turistikoan:

Ordezkaria: José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalde.

Ordezkoa: : Eusebio Elizalde Mariezcurrena.

Beste ordezkapenak mantentzen dira 2007ko ekainaren 25ean erabaki bezala.

### **2. ALKATE JN.AREN EBAZPENA.**

Idazkariak irakurri du alkate Jn.aren ebazpena, non José Iparraguirre Altamira eta María Cristina Apezteguia Saldias alkate-ordezkoak izendatu dituen; aho-batez berretsi dute ebazpena.

### **3. ELEKTRA.**

Ahobatez erabaki dute alkate Jn.a, José M<sup>a</sup> Gorosterrazu Elizalde, izendatzea ITURENGO ELEKTRA, S.L.ko administraria.

### **4. URBANIZAZIO PROIEKTOA UE-1.**

Promociones Lindutx Baztan, SLEk aurkeztu dituen agiriak eta planoak aztertu ondoren, Iturengo U.E. 1 unitatea urbanizatzeko, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 134 eta 76. artikuluekin bat etorritik, ahobatez, erabaki dute:



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

1. Urbanizazio proiektuari hasierako onespena ematea, Iturengo U.E. 1 unitatea urbanizatu ahal izateko.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hogei eguneko epean jendaurrean egoteko.

### **5. UR-HORNIDURAKO ORDENANTZA.**

Nafarroako Toki Administrazioiko Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, ahobatez (arazko quoruma) erabaki dute:

1. Hasiera batez onestea, Iturengo Udalak ur-hornidura eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.

### **6. ZENBAIT ESKAERA.**

1. Promociones Lindutx Baztan, SLEk herriko lursail batean kartel bat jartzeko baimena eskatu du. Eztabaidatu ondoren, 2. poligonoko 173. partzela herri jabetzako ondasuna dela ikusirik, kartela jartzeko toki aproposa dela kontsideratuz eta eskatu den erabilpen pribatibo honek ez duela mugatzen lursail horren ganako besteen erabilera kontutan hartuz, Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ahobatez erabaki dute:

- Promociones Lindutx Baztan, SLri lizentzia ematea kartel bat jartzeko 2. poligonoko 173. partzelan, Ituna aldera dagoen eskinean.

- Sustatzaileari ohartaraztea Udalak dituen eskumemen barruan eman zaiola baimena. Beharrezkoak diren beste baimen guztiak berak tratimatu beharko ditu (Nafarroako Gobernua, Ur-Konfederazioa...).

2. A.M.S.k baimena eskatu du kartak uzteko buzoia jartzeko mutikoen eskola zaharreko atzeko paretan. Eztabaidatu ondoren, buzoia jartzeko baimena ematea erabaki dute ahobatez. Dena den, komenigarria iruditzen zaio Udalari alderdi horretan bizi diren biztanleen artean taldeko buzoia bat (kolektiboa) jartzea, eskola zaharraren inguru edo hurbilean.

Eta bertzerik ezean, arratsaldeko 6ak direnean, alkate Jn.ak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.